

# ANAITASUNA

MAIATZA (5) 1966 XIII URTEA N.º 135. Dep. Legal S.S. 1092-1959 Zuzendaritza: J. A. Elustondo (Bilbon). Arantzazuko Irarkolan.

## EUSKAL LIBURU TA DISKOEN BIGARREN AZOKA, EIBAR-en



Maiatzeko 19-an asita, Euskal Liburu ta Diskoen Azoka ospatuko da Eibar-en. Lenengo Durangon egin zan. Bigarrena da Eibarko au.

Organizaziñoa "Arrate" Alkartearen lepotik doa. Alkar-te au "Sociedad Cultural Recreativa" da. Astero, "zineforum" bat emoten dau. Ekono-mi, Politika, Erligiño ta beste kultura-gaietako konferentziak be sarri. Ontan, laister barru antolatuko dau 4 egunerako "Emakumearen Astea". Euskal-klaseak be antolatuten dauz, oraintxe be eun dabilta ikas-ten.

Indar aundikoa da. 350 kide ditu, 3 pixuko etxea, ta zile-leku bat be bai.

Azoka au egiteko Komisiño bat eratu dau. Ta guk, talde ortan birrean dabillen Xabier Zubiaurre-ri egin deusaguz itaunok ANAITASUNA-rako.

—Zer lortu gura dozue Euskal Azoka onegaz?

—Guk gure doguna da Euskal-erriari bertoko liburuak erakutsi, ta, bidebatez, liburuok saldu daitezala.

—Laguntasunik izan dozue Azokaren antolaketarako?

—Bai. Ta asko. Erriak eder-to erantzun deusku. Esate baterako, beste urteetan lez, Umeen Euskal Jaierako, domekean, 22-an, 600 ume inguru etorriko dira kanpotik. Ba, oneeri da-

nari etxe partikularretan emon-go deutse jaten.

Ayuntamentuak be lagundu deusku. Diruz gitxi, "presupuestos llenos" daukozalako. Estorburi ez.

—Durangon ba dakizue zein ederto antolatu eban Azoka Gerediaga Alkar-teak. Izan dozue eurekin artuemonik?

—Bai, gauza bat dala ta bes-tea dala. Euren "stand"-ak edo erakuslekuak ekarri doguz ona be, gaiñera. Pageta, ori bai.

—Zenbat argitaldari edo editorial ekarriko dozue? Durangon 25 ziran.

—Emen be bardin. Ta batzueri, eurek ez datozen lez, "Arrate" Alkar-teak salduko deutsez liburuak.

—Zelan erantzun deusue argitaldariok?

—Ondo. Pozik gagoz.

—Nobedaderik ba dakarre?

—Baita ori be. Liburuetan, Durango-kotik onako ediziño barriak. Eta Diskoetan: Edilik 169 disko. Columbiak 100. Damera: Durangon baiño zatia geiago.

—Lau egun aukeratu dozue Azokarako. Zergaitik? Durangon-koa laburregia iruditu jatzuen ala?

—Ez da orregaitik, ez. Asentziño eguna 19-an izanik, egue-nez asi bear gendulako baiño. Barikua egun txarra dala ba dakigu, baiña Azokak zabalik

jarraituko dau. Olan domeke-rarte.

—Nun izango da Azoka?

—Untzaga plazan. Plaza au "18 de julio" da orain. Len "Republika"-koa zan. Lenago "Alfonso XIII"-rena. Baiña eibartarrentzat "Untzaga" beti be.

—Azoka lekura jentea erakarteko, zertariko "reclamo" edo dei, edo jaiak, imiñiko dozue? Durangon orduero imiñi eben zeoz; ta zuek?

—Guk oindiño programa zat-atz-meatz egin barik daukogu.

Baiña izango dora, dantza taldeak, txistulariak, euskal-pelikulak, antzerkiak, etabar. Gauza onak ba dagoz, bai.

—Nun izango dira jaiok?

—Azokako plazan bertan jantza ta euskal jaiak. Filmak eta konferentziak "Arrate" Teatroan (Untzaga-tik 200 metro-ra), eta Cassona-ren "Txalupak jaberik ez" komeria "Amaya" Teatroan (plazan bertan). Andoin-go "Larramendi" taldeak egingo dau drama au.

—Azoka ontarako neiko propaganda egin dozuelakoan gagoze, edo geiago egiteko esperantzarekin oindiño?

—Mille "mural" edo ormetan iminteko orri aundiak atara doguz, Euskal Probintzietan zabalzeko, mugaren ango ta emengo partetik. Euskaldunak dagozen Unibersidadeetara be bialduko doguz, Valladolid-era, Barzelona ta Madrillera, tabar. Oindiño be aldizkari ta periodikuetan geiago egin bear dogu.

—Beste urteetan be Azokagaz aurrera jarraituteko itxaropena daukoze? Urtero ala?

—Bai, jarraituko dogu. Urtero, seguruen. Baiña oinkarren ori ondo pentsatu ta erabakitu barik dogu. Bearbada, bi urtero be izan leiteke.

—Umeen euskal jaiak be organizetan zabizela dakigu. Ta ANAITASUNA-n argitaratu genduaneez, Umeen Ipuin Sari-keta bat preparatu dozue. Zelan doa ori?

—Amabi ipuin alleatu jakuz, ta oindiño elduko dira. Sari ori "Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián"-aren ardurapean dago, gastuak eta abar. 19 eguerdian erabakiko da len-Saria, Arrate teatroan.

joan mari torrealday.

### EGITARAUA-ren laburpen bat

|                 |  |
|-----------------|--|
| eguenta<br>19   | Txistulari ta dantzariak.<br>Meza euskeraz.<br>Amabietan, "Arratesaloian" Umeen Ipuin Sari-ketaren Erabakia.   |
| barikua<br>20   | Deba-ko mutiko-talde batek euskal jolas eta dantza egingo ditu.<br>Gabaz: Pelotari ta Alquezar, euskal-filmak, eta "Amaluz"-en propaganda.   |
| zapateria<br>21 | Azokak zabalik jarraituko dau.<br>Gabaz: Andoin-go "Larramendi" taldeak Cassona-ren "Txalupak jaberik ez" antzestuko dau, euskeraturik.<br>Bilingüismoari buruz Raimundo Herrero, Donostiko maixuaren Konferentzi bat.<br>Euskal-Musika: Karlos Mungia, Jose Antonio Villar bere Orkestina ta guzti, Mari Lurdes Iriondo kitarrarekin, ta Eibar-ko Merced olejioko Rondalla.<br>Atzera, Pelotari ta Alcazar. |
| domekea<br>22   | Txistularien kalejira.<br>Meza euskeraz.<br>600 ume inguru kanpotik Umeen Jairako.<br>Arratsaldez, Euskal Dantza.<br>Karrotzak.<br>Azokaren amaiera.   |

## MARKIÑA-tik

San Jose egunez Markiñako frontoian jai polit bat egin zan. Bertoko alkateak organizen dauz urtero baserritarrentzako aulako euskal-jaiak.

Frontoia beteta egoan —geiago eziñean— errementau bearrian.

Lenengoz, bertsolariak egon ziran euren betiko grazi espezialakin: Azpillaga, Lopategui, Mugartegui eta Mitxelena. Ederto!

Urrengo, Antonio Ansola edo "Irunaso" arrija-sotzaillea. Eun kiloko arri biribil batekin gogor ibilli zan, talde bitan, 27 eta 29 bider jasoaz. Ondo txalotua benetan!

Eta gero etorri zan postrea: Polipaso, Españi-ko kanpeoi, pasa zan urtean, Simon Salaberria eta Candido Churrükaren kontra aizkorapoztu ikaragarri batean. Polipaso aspalditxon entrenatu barik egoan anjinazko gaixopean egon zalako. Baiña, onek, galduarren be, apostu ederra egin eban. Beste aldetik, Churruka espaziala egon zan egun artan. Txaloak amaitu eziñean entzun ziran!

Azkenekoz, bertsolariak barriro. Ederto ostera be!

## AULESTIA-K.

## VALMASEDA-tik:

Aurtengo Bariku Santuan erri onetan aparteko krutz-bide bat egin genduan erritarrok. Krutz bide au 15-garren gizaldian asi zan egiten. Ordutik ona urtero-urtero egiten da ta geroago ta obeto esan bear. Aurten ia-ia 300 persona izan dira parte artu dabenak. Irureun persona erre esaten dira, baiña zertan esanik be ez danok batuta pillo eder bat dirala. Danontzako erropa bereziak billatuteko be bearko da diru apurren bat seguru.

Krutz-bide ontan parte artu daben guztiak bertokoak, errikoak dira. Jesus-en papela Ansuetege-tar Manuel dan mekaniku gazteak egin eban. Guzurre dirudi arren, urte guztian bizarra ebai barik euki dau, aurtengo krutz-bide onetan Jesus-en papelari jagokon lez egiteagaitik. Mariaren papela bigarren aldiz Aizpurua-tar Maria Begoña-k egin eban. Maria Begoña —edo Bego, errikoak esaten deusagun lez— gaztea ta oso liraiña da ta Bilbo-ko ofizina baten egiten dau biar. Telletxea-tar Fernando-k egin eban Arimatea papela, Pilatos-eri permisoa eskatuta Jesus Krutzetik jatxi ta guzti. Monasterio-tar Jose Maria-k, joan dan urtean Jesus krutzean jostekoan negar egiten ebanak, aurtan Zirineorena egin eban, Kurutzea eroaten lagunduaz.

Izan be krutzeak 54 kilo daukoz ta lurrean arrastaka eroatekoan izugarriko burrunda-dea ataraten eban. Ez burrunda-dea bakarrik; eroaten

ebenentzako pisua be naiko andia eukiko ebaa deritxat. Eztago esan bearrik egileak egizko gogogaz egiten dabela. Askok negarrez amatuten dabez euren biarrak, lantzien bein ganberroren bat egoten bada be. Bariku Santuan gertakizu au ikusteko batuten dan jenteak agertuten daben lez, errikoeri be gustaten jake. Zelan atsegin ez beste aldetik, egileak errikoak ba dira eta danen artean antolatutako gauza bat bada?

Barregarriak be egoten dira lantzian bein euren artean. Joan daneko urte batean batek "Agur, Maixu" esan bearran, "Barkatu, Maixu" esan eutson. Beste batean, Krutz-biderako preparatuten ari ziranean, bizardun bi etxe batera joan ziran gauza batzuk eroaten. Bertako etxeandreak bizardun areek barruan ikusi ebazanean, poliziari deltu eutson, lapur batzuk ziralakoak edo. Joan dan urtean lotsa ta burla ugari pasa ebazan Valmaseda-ko futbol ekipoko defensa batek, bizarra kendu barik utzi bai eban urte guztian.

Krutz-bide au erri guztiak lagunduta egiten dala zertan esanik be ez. Batzuk jantziak preparatuten dabez, besteak peluka klase guztiak ta aolan dana. Akabuko eginbearrak Bariku Santu goizean San Juan-en eleizan egiten dira; ta arrastian, ia dana listo dagonean, orduan asten da ainbeste denporan itxarotako gertakizun eder ta berezia.

Bilbao-tar Edurne-k.

## ETXEBARRIA-tik

### Etxebarria-ko idi-probak

Idi pareak be plaza-gizon izatera eldu jakuz-ta. Leno abere lotsati auker etziran agertzen plaza txikietan eta auzotegiaren aurrean ezik; ta orduntxe be bera begira, otsan. Egia esan oraiñ be makur ebilten ditue muturrak, baiña gauzak olan badoaz laster arrotuko dira. Izan be oraiñ mundu guztiaren aurrean dakite euren estropadok egiten.

Ondiño ointsu Etxebarria-ko proba-lekuan bederatzi buztarrik ekin dabe iru saiotan.

Sapatu illuntzean egin zan lenengo saioa, Markiña-ko Basaibar, Barinaga-ko Maguregi, ta Etxebarria bertako Aldeko baserrietako idi pareakaz. Eurria ta aro txarra egiten eban, ta urrengo gaubean egingo ebana baiño ainbat gitxiago egiñ al izan eben. Geien egin ebana be 31 unte ta laurenera be etzan iritxi.

Urrengo arratsaldeko ekiñaldia Berriatua-ko Txikiñe, Barinaga-ko Ezpilla ta Mallabiako Gamekoetxe baserrietako idi bikoteak jokatu eben; ta egualdi obeagoa, ta baita be aro ohea egiten eban arren etziran orrenbestean be portatu, Basaibar-koen atzetik gelditu ziran irurok-eta.

Akabuko ekiñaldia gaubean jokatu zan. Lenengo Barinaga-ko Azabel baserriko pareak jokatu eban, ta 33 unte goitu ebazan. Ta diñoenez geiago be egingo eban idi-pareak itzulen

ebillenak zurrago jokatu izan baleu.

Bigarren Mallavia-ko Zubitegi baserrikoa atera zan, eta gogor ekiñ eben idiak. Azabelgoeri erre onduko eutsela emoten eben. Baiña 30 unteza eldu ziranean pott egiñ eban antza idi-pareak, ze lotu ta aida, 32 ta iru lauren baiño ez eben egiñ. Azkenengo atera zanak egingo eban lenengo. Markiña-ko Txasio baserrikoak ziran. Eurek irabazi eben dana: lenengo unteza ariñen egiten ebenentzat egoan pentsu-sakua; lenengo ordu laurenean geien egiten ebanarentzat egoan kopa be eurrek jaso eben; ta 9.000 peseta-ko zaria be bai. Ederto baten joango dira diruok Txasio baserrira; izan be olako idi ederrak mantenduteko baiño be geiago bear da amaika seme-alabari jaten emoteko.

Zelan gero, idiok bapo-bapo plazara danen begi aurrera. Egia esateko otz egoan, ta etzan jende larrei be apostua ikustera joan. Sapatuan eurria eginda egoan, ta domekako ipar-aize otzak sorgiñ itxureko arpegia ipinten eutsan edonori.

Barriro be Paskuetarako demak eratuteko asmotan ei dabiz. Nork egingo dau lenengo? Onako ontak aitan bukatu eben bederatzi buztarrik. Lenengo Txasio baserria 34 untezagaz. Urrengo Azabal, 33 unte ta 2,25 metrogaz. Zubitegi 32 ta iru lauren unte ta 4,45 metrogaz. Basaibar 31 unte ta 4,85 metrogaz. Bostgarren Txikiñe. Seigarren Ezpilla. Zazpigarren Gamekoetxe. Urrengo Maguregi, ta azkenengo Aldeko baserrikoak 18 unte ta 5,30 metrogaz. Barrena-k.

## LEKEITXIO-tik

Lekeitxion turista asko gelditzen dira udan erri polit bat dalako eta plaia eder bat dauakolako be bai. Baiña problema bat sortzen da derrepente emen udako denporan: zelan sartu eta tolostu ainbeste turista erri txiki onelan?

Au dala-ta proiektu batzuk paperetan dagoz:

- 1) Erriko etxegintzak ugaritu.
- 2) Bilbotik Ondarrurako bidea Lumentxa mendiaren atzeko partera aldatu. Aolan erri oneko trafikoa aixetuko litzake.
- 3) Obetu orain dagon Ondarrurako bidea.
- 4) Beste kale zabal bat edegi (8metrokoa zabaleran, alboak konta barik) Santa Katalinakoari paralela egiñaz.

Lekeitxioko biztanleak arin doaz goraka. Etxeak ez dira egiten nai alan. Uda ona bada, Lekeitxio guztia turistaz beterik egoten da eta ez dago etxerik oneintzako. Ori dala-ta, oraingo plan-probintzialak zeozer lasaituko dabelakoan gagoz gaurko situaziño estua.

Papereetako proiektuak egiteetara biur beitez!

# Euskal jakintzaren txapelketea

Gure Gernikeko Gizarte-Etxean antolatu zan ilbeltzeko 23-an sariketa bat 15 urtetik berako neska-mutillentzat. Benetan pozgarria dogu txapelketa au, ze berak azaldu dau gure umeen artien oindifio euskerea bizirik dagoala. Batzuen artian beintzat. Amasapi baiño ez ziran batu. ¿Ez ete dira nelko asteko?

Danak egin ebezan alegiñik aundiyenak euskeraz idatzi, irakurri eta asmeu be albo-koak baiño obeto egiten. Alan dala, or daukazuez gernikar umetxoak idaz eta irakurri-lanean.

Nagosiyan artean, bederatzirteko neskatetxu batek irebazi eban sariye: ALAZNE AURRE. Dotore be dotore atonduta moldatu eban bere gaia. Onen arteko sailketa alan jarri zan: 1. Alazne Aurre. 2. Sardui'tar M. Lurdes. 3. Abaitua'tar Joseba Iñaki. 4. Mirari Azueta. 5. Arrien'tar Ane Miren. 6. M. Karmele Azkarreta.

Irakurle gaztiena bost

urteko mutiltxu bat agertu zan Ander Aurre. Onek bai gixontxu bat legez irakurri.

Sei urtetik sortzi urterafio-ko neska-mutil artean ba bateratu ziran lenengo puestoan: Begoña Basanez ta Gorka Aurre. Bigarren geratu zan Itziar Ortuzar.

Aurretarrak bai jatorrak: benetako euskaldun nebarrebak. Baiña, gerni-

karrak, konturatu zaitez: onek umeak iturriya dariola daukie etxe barruan...

Len be esan dogu: azteko ondo ete dago? Baiña ezin gara onegaz konformatu. Euskerea etxe-barrutik atara bear dogu: "Euskera, jagi adi plazara". Bai. Ba orretarako derriorrezkoak doguz ikastolak, eta ortan gure agindariak be badauke zer esanik. Ta zezozer egifiñik be.

## EUSKERAZKO FILMAK

*Gabonetan ikusi dozuez Gernikan Gotzon ELORZA'k egiñeko pelikula txiki batzuk. Eta askok onelako pentsamenduak erabili dozuez buru barranean: Ze gustora entzuten dira azalpenak euskeraz... Askotan pentsetan dogu ezetarako be ez dala gauza. Eta orduan, zer egiten dogu? Umeeri edo txakurreri euskeraz egin, baita baserritarreri be. Ostera, gutartean, kaletarren artean, erderaz.*

*Eta ori badakizue zergaitik gertatuten dan? Ba... euskeraz ez dakigulako. Lotsa eta bildur gara euskeraz egiteko, ikusten dogulako gure euskera (kaletarrena) laburra eta txikia dala. Baiña ez uste errua euskerana dala. Gure errua da. Eta orrela kalte bi egiten doguz erabatera: Alde bate-tik, euskeraz egiten duena kikildu eta areri lotsatu. Baserritarrak eta ez-jakiñak kaletarreri begira bizi dira. Ikusten badabe euskeraz lotsatuten garela, eurek be apurken-apurken lotsatuten asten dira, eta askenean semeeri ez erakusteko alegiñak egingo dabez. Orrela sartuten da erdera, euskera baztertuaz. Beste aldetik, kaletarrak eta erdi-jakiñak erderaz egiten badogu, zelan aberastuko dogu euskera, zelan landu eta apaindu? Izkuntzak orretara onduten dira: ERABILLIAZ. Zergaitik esaten dogu ba euskeldunak gerala? Guzurra eta guzur madariketua. Zuelakoagaitik ilko da Euskalerrria. Ori uste dot esan gura izan daula Gotzon Elorzak beran filmakaz. (Brisas Guerniquesas-tik).*

## ESKONTZA ARIATZAN

Ezkontzera zoiazan  
Bikote zintzuak  
Zuentzako dira gaur  
Lorazko bertsuak.  
Kantuz eskeintzen gatoz  
ZORION sutsuak,  
Izan dagizunean  
Urte ez-titsuak,  
Onetsi zagizela  
Aita kurtzekuak.

Neska mutillak biak  
Diranian onak  
Orren ezkontzak dakaz  
Fruturik onenak  
Maitasunezko arantzak  
Loratzen dauz Jaunak  
Saritzat emonagaz  
Autxoan laztanak  
Olangorik ez daki  
Guraso ez danak.

Senar eta emazte  
Alakarri lagundu,  
Garbitasun bidetik  
Ez iñoiz aldendu.  
Aurtxorikan badator  
Goiz edo berandu  
Jaunaren bildurrean  
Azi eta zaindu  
Orretarako zare  
Egiten ezkondu.

Lorarik gabe fruturik ez da  
Zuek zarie gaur lora.  
Euskal erria urduri dago  
Zuen frutuari begira.  
Euskal fedea eta oiturak  
Indartuteko badira,  
Orduantxe bai zuen frutuak  
Ederrak izango dira. (bis)

Umetxoaren odol garbiak  
Gauza eder asko aldu  
Bigun dagozan artean ondo  
Egin ezkeru atondu.  
Gure artean diran okerrak  
Onek dagixen zuzendu.  
Jaiotza lurra maite izaten  
Umetxoari lagundu. (bis)

Gazte maiteok zuek zarie  
Biarko loraren aldun.  
Ongille onak izan daitezkan  
Beti egiagaz jardun.  
Denpora pasa eta ez esan  
Ai! lenau egin bagendun.  
Sasoi danetan beti agertu  
Guraso zintzo fededun.

Enbeita-tar Balendin.

# Nekazaritzaren EGOERA LARRIA

Ez dot uste nire idaztitxo onek gaurko estrukturak aldaizeko ainbat indar eukiko dauanik; ez nau asmo orrek idaztera eragin, "gauzatxo" baziuk adierazteko gogoak baiño. Azpaldiko gogo onek adieraztera ortaraxe natortsu ba.

Baserri baten jaió ta nire lenengo urteak bertan igaro nebazalako izango da seguru nire biotzeko taupada onen ixildu eziña. Baiña auxe da, nire ustez, protemaren erraiñetara eltzeko biderik egokiena. An ta emengo liburu ta errebistetan artutako apuntetxo batzuk osatuko dotaz laburki.

Asteko, nekazari ta industrial biergiñaren lan-sari minimo edo txiki-nak ikustera goazen. (Industrial sektore ortan nekazaritza ezik beste guztiak sartzen dotaz). "Acción Social Patronal"-ko estadistikari siñistu bear ba-deutsagu, nekazariaren lan-sari minimoa industrial biergiñaren 75% edo geiñean, 80% baiño ezta. Ia obelo aittuten ba-gara: industrial biergiñ baten lan-sari minimoa esate baterako 100 peseta balitz, nekazariaren egun osoko bier orren produktoa dirutan jarrita 75 peseta izango litzake. Au da, industrial biergiñak baiño 100'eko 20 edo 25 peseta gitxiago jasoten dauz gure baserritarrak. Eta zergaitik au? Ala karretilla ta pikatxoi baten maneja baiño besterik ez daukan orrek, espezialidadean irabazten ete deutso nekazariari, naiz ta gizajoena izan? Zergaitik ordun? Ba dira onela diñoenak: Baiña kalearen ondoan nekazari bizitza merkea da gero! Arrazoitxoá emon daiketsut; neu be konporme nago baserria kalea baiño merkeagoa dala esaten ba-deustazu. Baiña argumentuak apur bat zorrotz-tuta, nun dagoala uste dozu baserri bizitza merketasun orren iturria? (Iturri parebakoa ezta? Begira ia zure eskuetan ez daukazu). Egia da porruk eta azak eta abar plazan erosi bearrik ez daukala. Iturri mea daukagu oraindik. Ia ba iturriko urak apur bat loditzen ba-ditugu: baserri geiñtsuenetan ez dago bañurik; butanozko kokoziña edo berotegirik be ez; ezta telebista edo frigorifikorik; eta abar... Aor iturri bete-betea! Merkeagoa izango ezta ba?

Nekazaritzako produtoen sal-neurriak ikusi daiguzan orain. Cortes'ko alpapgaz gertatzen dana naikoa izango da. Cortes, Naparru be-aldeko erri bat da. Urtero urtero amar milla tonelada inguru ateratten dauz. Cortes'ko nekazariak 1.400 pesetan saltzen dau alpapa toneladea. Ez dakit nik asko edo aiñ asko ezpada; baiña auxe da nik dakitana: Santander edo Madrilleko almazen edo biltokietan tonelada alpapa berori 3.100 pesetan saltzen dala. Nortzuen artean banatu diran 1.700 peseta orrek? Begira: Cortes'ko tratanteak 1.400 pesetan erosi, ta jardutan ipiñi ondoren, 2.300

(Zortzigarren orrira)

# Zer da politikea?



Sarri ao miñean ibilli arren ia ez dakigu politika zer dan.

Denpora igarogarri dan zaletasun alperrekoa dala uste dogu politika, batez be odol beroko diranen aututarako gai bat. Origaitik askorek entzun be ez dabe nai izaten politika konturik.

Ta ez, politika ez da utskerria; politika bearrekoa da gizartearentzat, gizonarentzat airea bezin bearreko.

Gizona, antxiña, abere antzera bizi zanean besteakaz alkartu barik bizi aal izango zan; ardi narruz jantzi, eizean artzen ebana jan eta aitz zuloetan bizi. Bizitza ori eroan aal izateko ez eban premiñazkoa beste gizonkazko artu emonik.

Baiña deporagaz aurreratzen joan danean gizonen arteko artu-emonak geitzen joan dira.

Gaur ezin leiteke bakarka bizi gizona. Danok bata besteen premiñan bizi gara. Ni be ez naz bizi izardirik jaurti barik, baiña nik jaten dodan eta jazten dodan guztia besteak egia edo sortua da, ta

bardin nire etxe ta biziteko bear doguzan tresna guztiak be.

Gaurko dizimoduak gizona gizartean eratzea eskatzen dau: derriorezkoa da Laterri edo Estaduen organizaziñoia.

Milla gauza dira Estaduaren zeregiñak diranak.

Adibidez ara batzuk:

Bide zabal edo kamiñoak premiñazkoak dira. Bideak ezin leitekez arenak edo onenak izan, bideak danontzat izan bear dira. Beraz, bide orreik egiteko bearrekoa da Estadua.

## Politikea bearrezkoa dogu

Diru barik be gaur ezdago bizitzerik. Danok ez gara zerbaiten jaube geuk bear dogunaren ordaiñez trukateko. Gaiñera danok zerbaiten jaube bagiña be makia bat errezago da saldu eroste guztia diru bitartez egitea. Ta danontzat balio daben dirua egiteko be Estadua bear.

# Politikea zertarako?

## atxarteondo

Bai, askontzako politikea us-  
teri bat baiño ez da; ez go-  
rrantzi bakoa dalako, ainbet bu-  
ruko miñen iturburua besterik ez  
dalako baiño. Zertarako —pen-  
tsaten dābe— sartu orrelako  
arazoetan norberaren kalterako  
bada? Gure artean be ba dira  
onetariko ainbeste gizon. Oneek  
laiño gaiñetiko mundu bat egin  
gura dabe; eta gure "erligiñoa"  
loitu ez doian —aolan di-  
ño eura beintzat— gizar-  
teko arazo gogorretik anka egi-  
ten dabe, bada ezpadan be. Di-  
ñoen "erligiñoa" edo euren nar-  
rua trankil eukiteagaitik ez ete  
dan nago. Dana dala sagarra-  
ren arako kontu ura: sagar  
onak aparte, ez daitez an ustel-  
du ustelen aldamenean.

Egia da politikan sartzeak  
—politika berba au bere esan-

gura zabalean artuten dot, au  
da, administraziño publikoa eta  
ekonomi, sozial ta politikako  
erakundeak— egia dala diñot  
politikan sartzeak arrisku an-  
diak ekarri deikiguzala. Baiña  
onetzaz begira zer esan dauan  
Pio XII-garrenak: "Derrigorrez  
eta betiere giza-bizitzak —bai  
partikularrak baita sozialak—  
Kristoren lege ta espiñtuagaz  
topo egiten dau. Ortik dātoz,  
aolan bearrez, apostolutza erli-  
gioso ta egintza politikoarekiko  
artu-emonak. Politika ber-bak  
—bere esangura zuzena— ez  
dau esan nai erriaren one-  
rako kolaboraziñoa besterik.  
Erriaren onak, barriz, edatze za-  
bala dau eta, beraz, erri alo-  
rrean garrantzi andiko legeak  
eztabaidatu ete emon be oi di-  
ra; ezkontzari, familiari, umea-  
ri eta eskolari jagokozenak, adi-

bide batzuetara xoillik muga-  
tzearren. Ez dira, gero, ara-  
zo oneek erligiñoari interesa  
jagokozenak batez be?"

Politikako arazoetan egintza-  
ra beartuten gaitu, bada, gure  
kristiñautasunak. Or eztago  
bueltarik. Aolan da guztiz be  
orregaz ez dogu esan gura da-  
nok politikarriak izan bear do-  
gunik. Politika-joera bokaziño  
bat da, ta beraz, danok ez gagoz  
beartuta gradu bardiñean. Baiña  
—ori bai— bakoitzak bere le-  
kutik danok egin bear dogu al  
doguna gizartea geroago ta  
obeto egon daian. Ez eskuak  
pratikereetan sartu ta or kon-  
pon esan. Onetarikoak aztu egi-  
ten dabe PACEM IN TERRIS-ek  
diñoskuena, zera, gaur mundua  
ta gizartea aldatuteko "barru-  
tik egin bear dala lana eta ez  
azaletik".

Beste au be euki bear da  
kontuan: gizarteko instituziño-  
tan tajuz lan egiteko, derrigo-  
rrezkoa dogula, beste edonork  
lez, "jakitez eta teknikaz" ondo  
preparatuta egotea. "Katoliko"  
titulu utsak ez dauala emoten  
naiko indarrak gizarteko erakun-  
deetan bearrezko sarrera bat  
egiteko. Len bai, naiko zan  
indarrak euki ta katoliko iza-  
tea, norberari eritxona egiteko.  
Esate baterako, zenbat partidu  
politiku ez ete dira egon mun-  
duan —zoritarrez gaur ba da-  
goz baita— katolikuak dirala  
esaten dabenak eta, gero, gi-  
zarteko artu-emonetan eura  
gura daben lez konportatuten  
diranak? Orregaitik da gaurko  
gizarteak politika arazoetan  
partidu katolikuak baiño, bene-  
tako politiku katolikuak bear  
dauzala.

Bakoitzaren eskubideak zainduteko eta  
txarkeriak albaitean galerazoteko errizai-  
ñak bear dirala iñork ezin ukatu daike,  
ba danok ez daukagu gaizkilleai arpegi-  
rik emoteko bear aiña indar ta adorerik.

Bai, erriak zuzendu edo gobernau egin  
bear dira.

Ta zeregin onek zer izen dauko ba?  
Jolasa ez, ertia be ez ta ez beste ezer  
be politika baiño.

geru edo makiñena. Geu gizonok ardu-  
ratu bear gara politikaz.

Egia, danok ez gara erri agintari izan-  
go, baiña erriari ikutu egiten dautsen ara-  
zoetan danok arduratu bear giñake.

Asko dira politikak ez dautsela ardura-  
rik esaten dabenak. Baiña olakoak be  
ez dabe egi osorik esaten. Danoi izaten  
dausku ardura semeak soldadutzan den-  
pora asko edo gitxi egin, geure erria gu-  
dan sartu edo ez; gasoliña merke edo  
garesti izan; Estaduak erligiñoari azka-  
tasuna emon edo makilka erabilli. Ta  
olan milla arazotan ontzat emoten dogu  
edo txarto iruditzen yaku Estaduaren jo-  
kabidea.

Beraz kontu orreik eta orrelakoak ar-  
duratzen dituan guztiai (ta nor ez da  
arduratzen?) politikak ardura dautsoe  
naita aurak ez uste izan. Ba, politika ja-  
torriz orixe da; erri problemarekin ardu-  
ratu, gizarteko buruauste ta gora berakin  
arduratu.

Ta politikaren ondorenak danok ardu-  
ratzen bagaitu, politika arazoari bizkarra  
jaso ta iges egin nai izatea baiño zuntzu-  
nagokoa da arpegia emon ta erriko gora-  
berak alik-eta ondoen erabagi daitez an  
geure alegiña egitea, berba baten politi-  
kan sartzea.

Egia, politika berez zeregin bearrekoa  
ta danon egitekoa izan arren bere alder-  
di guztiak ez dira txalogarri. Makiñabat  
asarre, gorroto, ta odol ixurtzeren sortza-  
lle izan da politika!

**Kamiñazpi.**



Edo ta txarto egiñak zuzendu bearra  
izaten da, epailleak bear dira.

Ta orreik guztiok Estaduaren zeregiñak  
dira; ta beste milla kontutan be Esta-  
dua bearrekoa da.

Erriak gobernatzeko zeregin onen ize-  
na politika da.

Iztegi edo dizionariuak be orixe dala  
esaten dau politika itzaren esanaia.

Politika zeregiña gizonona da, ez ain-

# Euskal- artzaiñak EE. UU.-en

Artzaiñak joan dira... baiña orain barriri Bilbo-tik urten dabenak, euskal mendi gallurretan ez dozuz ikusiko, ez. Bai urrun: Kaliforni, Idaho, Nevada, Utah, Oregon, Wyoming eta Montanako mendietan. Alderdi orretan be entzungo dira entzun euskal txistu ta irrintziak. Eta ain ots goxoa! Bai, gure artzaiñak lur zabalekoak dira, goietako artzaiñak.

## Arako bideak

Euskaldunak entzute ona eta unibersalidatea beti bizirik eutsi dabe. Euskalduna guztientzako izan da. Gaurko egunean, ordea, eboluzioari jarraituaz, erabarritu egin da, apaindu oraingo aldietara. Lengoa, Ameriken lur barriak aurkitu, esploratu eta uri barriak jaso ebazan. Gaur Ameriken eta Australian artzaintzan dabil. Terranova-ko eta Aprika-ko ur gazietan arraintzautan, eta pelota jokoa Florida-n. Danak orrean, euskaldun azia munduan zear zabaldu naiez.

Esatekoa, urte batzuk onantz, Ameriketarako emigratioaren urritzea. Eta au gure industria eta lurrearen balioagaz konturatu garalako. Alan da guztiz be ba-doa be-rea aruntz.

Eta oin artzaiñen buruz zozer barririk ba-dago. Izan be, EE. UU.-era artzaintzan doazanak, gauzak zorrotz antolatuta daukoiez. Esate baterako, ezin dabez, bederatzi urtetik gora pasau lur aretan. Eta bederatzi urte orreek, iru alditan, aldi bakoitzeko, iru

urtetan zatituta. Eta au bukatutakoan Españi-ra betiko biurtu bear dabe. Beraz, era ontan artzaiñak iru joan-etorri egin bear dabez (iru urtetik iru urtera), eta gastu andiakaz aurki. Orragaitik Españi-ko gobernu, Washington-ko buruekin lanean asi da, ia beste era batera konpondu letekean gai au. Españi-k eskatzen dabena auxe da: bederatzi urtekoa izan bearrean, amar urteko egonaldia izan daiela. Eta bost urteko aldi bitan zatituta. Olan joan-etorri alde bat egin bearrean gelitzen dira.

Gaur egunean gaiñera, euren bizitza guztirako be joan daitezke, beintzat euren patroñoak alan gura badabe, bertako agintariakaz alkar artuak eginda gero. Amar urteko egonaldia egin ezker, EE. UU.-eko Seguro Sozialean be sartu leitezke.

## Euskaldunen zabal-egarria

Joan Olartekoetxea, Estados Unidos-etako konsuladuan, emendik joaten diran langilleen buru da. Eta onek diñoanez, gure lurretatik alderdi aietara zazpireun bat artzai joaten dira urtero. Azkeneko taldea eunda lau gaztek osatzen eben. Onek ziran Pirineos bi alderditako euskaldunak. Baita be Naparra eta Santander aldekoak be ba ziran. Norteamerikako artzaintza oso eramankor biurtuta dago. Artzain bakoitzak illero 225 tik 275 dolarrera (13.500 tik 15.500 pesetara) irabazten dauz, janaria ta lotokiaz gaiñera.

# Urriko aguazilla eta txoferra

Belbil batekin nabil  
Aspaldi guztijan  
Eta aguazil bat  
Beti dot jarraijan  
Sarritan geratu nau  
Kalien erdijan  
Zer nai dun ezagun dau  
Bere aurpegijan.

Dama gazterik bator  
Auto ederrakin  
Nasai geratuko da  
Izketan eurakin  
Ez da konturatuko  
Atzekuarekin  
Gustora egoten da  
Ezpangorriakin.

Aguazil au dabil  
Nigaitik ekitten  
Karnentik ez dodala  
Bidan lez ibiltten  
Gaur ere etorri yat  
Atzetik birritten  
Nire kontura nai dau  
Juan bazkaritten.

Korneta jo ezker  
Orrua eilendu  
(La ley de silencio)  
Laster esaten du.  
Ezker eta eskubi  
Ezin ditu zaindu  
Bear ez daben askok  
Ogia jaten du.

Karneta ondo daukat  
Nausiak emon da  
Aguazillak ezetz  
Or dogu demanda  
Nai badu jakingo dau  
Lekura juanda  
Ez iñoren kontura  
Bazkaria janda.

Turruta joten bada  
Bizkorra mutilla  
Baña-lekua zaintzen  
Ez da ain abilla.  
Obeto ez badabil  
Gure aguazilla  
Asi bearko dogu  
Barriaren billa.

Eskuak zabal eta  
Guante zurijak  
Bajuak arrapatzen  
Daukaz malizijak.  
Antza ezkazak dira  
Bere-irabazijak  
Tranpara kentzen ditu  
Mueltarik erdijak.

Barria bator ere  
Kontuz bada ezpadan  
Mueltarik baldin bator  
ez asi demandan,  
Indarrez justizia  
Zelan egiten dan  
Baztertuko zaitue  
Lenengo oztikadan.

Gizon zintzua beli  
Zuzen eta ernai  
Etxian ta kalian  
Lanian ere bai,  
Guzurragaz polito  
B'zi leike nunnai  
Egiak daukan arte  
Toki danetan jai.

E. B.

## Euskaldun erri barria: Idaho

Euskal artzain asko aurkituten dira Idaho-n. Begira: Inglesagaz batera, euskerea ei da bertako izkuntza ofiziala. Izan be, euskaldunagandik jaiok asko dira. Baiña jatoretan jatoretan be bai. Bertako gobernadoreak aitortu dabenez, gertatu diran asesinatoetan edo burrukaldietan,

ez ei da ikusi bear orretan euskaldun atzamarrak. Bear fiñ eta zintzoetan, bai ordea. Eta, azkenez, ikusteko ze erriko eta erriaren begiko dogun euskerea eta euskalduna Idaho-n, esan daigun New York-ko Feria Nagusian edo Mundialean euskaldun dantzariak izan zirala Idaho-ko ordezkariak.

Dionisio Etxerre.

# Bakio-ko idi-probak

19 idi pare bildu ziran Bakio-n San Josetan, ta onenatarikoak bildu be. Artean Bakio-n garrantzi ortako probarik ez da izan, baiña gauzak zuzen-zuzen gertatu ziran, antxiñatik aolan egin oi balira lez. Orregaitik eskerrak emon bearrean gagoz Sabino Muruaga-ri, gaurko probalarien Mezenas bera dogulako. Gauzak ondo ta zuzen joan eitezan ekipo osoa bilduta eukan Sabino-k. Ondo antolatuta euki be gero.

Abadiano eta beste leku batzuetan lez, kinielak be izan ziran. Ta ia Karlos Barrena-k milla pesetako pillo bat jaso be bai. Nok esango eban periodista batek onetariko gauzetan be ulertuten dauala!

Bakio-ko plazak 25 metro daukoz. Arri andiekaz egiña da eta, beraz, eztago zertan esan bearrik oso garbia izan bear dauala. Egun orreetarako Gatika-ko arria ekarri zan ta 100 kilo geiagoaz erabili. Alan da be, marka ederrak atara ziran, naiz ta idiak —geienak beifnepein— naiko txikiak izan.



naiz larri ibilli. Ikeriya-ren markea estali eban. Onek be beste ustel bat ba eban ez pentseu gero Ikeriyak baiño asko geiagorik egingo ebanik. Dana dala —suertez edo izatez— oraingoz Antzua-ren idiak onenak eta seguruenak dirala emoten dau.

Bermeo-ko Pedernales-ek —tratantea au— idi pare koxkor bat atara eban. Baiña egun artan irugarren tokian geratu zan. Urrengo egunean beste batzuk be estaliko eben marka au. Jabeak ifioenez, oraindik Bermeo-ko beste idizaleeri naiko biarra emon bear deutsoe idi oneek.

San Jose osteko egunean —domekea zan— Bermeo-ko Benjamin Alegria-k ekarri eban uste bakoa. Idi txiki batzuk atara ebazan ta tika-tika 43 untze bete. Barrasate-k 50.000 edo 60.000 pesetan erosi gura eutsozan, baiña Alegria-k 100.000 eskatu. Ez eban gura gitxi!

Braulio Bilbao-k be ez eban egin askorik. Erraldene-koagaz Gamiz-ko idi ekerra ekarri eban. Txarto ibilli ez arren, zazpigarrengo lekuan geratu zan. Mantak irabazteko naiko urrun.

Illuntzean “ondu ezetz” kantatuz, ain aipatua izan dan txapeldunak urten eban: Erandio-ko Barrasate-k. Baiña onek be —egia esan— ez eban egin aparteko gauzarik 37 untze bakarrik atara ebazan da. Azkenen urten ebanak naiko ondo egon zan. Izan be Lujua-ko Marzelino Zarragaren idiak oso txikiak izan arren 41 untze-reifo eldu ziran.

## Probalariak

Asko ziralata egun bitan jarri ziran saioak, eta egun bakoitzean iru alditan: goizean, arrastian eta illuntzean.

San Jose egunean bigarren plazara urten ebana Mendata-ko Ikeriya izan zan, Bakio-ko Renteria-ri erositako idi pareagaz. Pareja onek oso ondo jokatu eban, Atxuri itzai eukala. 25 minutuetako 42 utze ebazan. 55 baietz be esaten zan; baiña bide erdian ustel bat egin ta galditu egin bear derrigorrez. Urrengo untzean be beste orrenbeste igaro jakon. Aolan Ikeriya 45 untzetik ezin urten eban. Bakio-koeri be guztatuko jaken bertatik erositako idi pareak irabaztea, baiña Antzuak marka ori estali egin eban. Ustel aregaitik seguruenetik.

Illuntzean betiko txapelduna azaldu zan, Berriz-ko Antzua. Onek idiak be ondo jokatu eben, ta gero ta obeto egiñaz gaiñera. Aolan, azkenengo minutuetan.

### Aolan, bada, geratu ziran:

|  | untzeak | metroak |
|--|---------|---------|
| 1.—Benigno Azpitarte “Antzua” (Berriz) .....       | 46      | 4       |
| 2.—Antonio Esturo “Ykeriya” (Mendata) .....        | 45 ta ¼ | 3,95    |
| 3.—Benjamin Alegria “Kantara” (Bermeo) .....       | 43 ta ¼ | 4       |
| 4.—Marzelino Zagarra “Arzubiaga” (Lujua) .....     | 41      | 3,80    |
| 5.—Luziano Lezamiz “Zabale” (Busturia) .....       | 39      | 3,10    |
| 6.—Nikolas Pedernales “Bizkerrota” (Bermeo) .....  | 38      | 5,60    |
| 7.—Braulio Bilbao “Larrabarri” (Lujua) .....       |         |         |
| 8.—Isidro Basarrate “Larrinaga” (Erandio) .....    | 37      | 4,30    |
| 9.—Jose A. Zamarripa “Kale” (Derio) .....          | 36      | 4,15    |
| 10.—Rafael Zarandona “Larrauri” (Mungia) .....     | 34      | 3       |
| 11.—Martin Furundarena “Lobas” (Gamiz) .....       | 32 ta ½ | 6       |
| 12.—Marzelino Derteano “Boroa” (Amorebieta) .....  | 31 ta ¾ | 2,50    |
| 13.—Antonio Mendizabal “Elorrieta” (Bakio) .....   | 29      |         |
| 14.—Luis Olano “Ezkiaga” (Bermeo) .....            |         |         |
| 15.—Jerardo Gana “Aretxabaleta” (Lejona) .....     | 24      | 2,85    |
| 16.—Fermin Aurrekoetxea “Etxebarri” (Meñaka) ..... | 21 ta ¾ | 5,80    |
| 17.—Jaime Alegria “Landabaso” (Bermeo) .....       | 20      | 6       |
| 18.—Santiago Renteria “Gaubeka” (Bakio) .....      | 17      | 2,90    |
| 19.—Braulio San Seberino “Katxuena” (Bakio) .....  | 11      |         |

# NORA GOAZ?

Gure enda edo arraza galtzera doa.

Naiz-ta askok alan uste, gure arrazaren prolema ez da alboko endakin naasten doala, eta orregaitixek galtzen. Naaste ori berezkoa da, ukaeziña dan neurri berean. Gaifera, gaurko munduaren billakaera edo eboluziñoan, zentzudun batek ezin leike kontrakorik defendidu, egunean eztagolako "ghetto" edo mundu aparte bat egiterik. Idigiak izan bear gara.

Ta bein da betirako ondo buruan artu daigun: Euskaldunak izango bagara, ez da izango odola olakoa edo alakoa dogulako, euskeraz berba egingo dogulako baiño.

Diñotanez, gure errazaren galbidea beste eskiña batetik jatorku. Ta ez gara konturetan. Eta-ta konturetan bagara, ez deusagu erremediorik iminten. Ta azkeneko au txarrago da. Txarragoa ta errudunagoa.



## Zergaitik goaz galtzen gure arrazea

Gure errietan asko edaten da. Larregi. Txikiteoak galdu bear gaitu. Aldizkarietan irakurri dozuez seguru txikiteoaren zenbakiak-eta, ez noa, ba, atzera orreek ekartera. Neiko dot esatea, gaurkoz, zenbakiok biribillak eta luzeak direla.

Nik, iñor banintz ortarako, dei bat egingo neuskioe euskalduneri: Jainkoarren, gure erria ezer maite badogu, itxi daiogula edateari, gorrotatu daigun txikiteo usantza mardikatu ori!

Ba dakit ez dala erreza: te-

lebista, irratia, periodikua, dana dago gure kontra ta alkoolaren alde bere propagandan. Soberano dala, Veterano dala! Orretara, edaria, agotik baiño ariñoago, begietatik sartzen jaku. Lenengo buruan, gogoan, egiten jaku egarria ta guraria, ta geroago gorputzean! Orren aurka egotea ez da olgetakoa.

Mediku batek zer esango ete leuskigu alkoolaz?

Alkoola (ardaua, kofiaka, eta beste alkooldun edozein edaria) gorputzarentzako txarra da. Batez be nerbioentza-

ko: auldu egiten ditu. Ta ausi be bai, sarri.

Orain bi urte. Donosti-ko Sikiatria-ra euneko 75 joan ziran alkoolagaitik.

Kamiñoetako akzidentetan, geienak alkoolaren erruz izaten dira. Urte baten, Frantzi-an, eunetik 75 izan ziran orregaitik. Bierreko akzidentetan be bardin. Ta ez mozortuta dagozalako, ez. Alkoola edan ostean txarrago ikusten dalako baiño. Eunetik 4 bider arrisku geiago ei dagoz edan ostean. (Bi ikusi bearrean bat bera be ez da ondoegi ikusten, antza).

Batzuen ustez, edariak indarra emoten ei dau. Ez da egia. Momentu bateko euforia bai, baiña ez besterik. Ta, egia esan, medikuek esaten dabe, alkoolak indarra kendu ta makaldu egiten dabela apurka-apurka.

Ardaua, apur bat, ona da jatorduetan. Bierrean ibilli ta 20 urtetik 50-ra dituanarentzat litro-erdi da neiko. Beste guztiak gitxiago bear dabe.

Goazen bidetik, arima, gizontasuna, ta euskalduntasuna kaskartzen ari gara.

joan-mari torrealday.

## Alkoolak dauko erru guztia

### ESKATUTEKO TXARTELA:

ANAITASUNA aldizkaria artu gura neuke:

Izen-abizenak .....

Bizilekua .....

Erria ..... Prozintzia .....

(Laugarren orritik)

pesetan saltzen dau toneladea (Urrezatiak edo naastau ete deusoz ba?) Cortes'tik Madrillera eroatea, toneladako 500 peseta, Madrilleko almanenistak ba, 2.800 pesetan erosten dau alpalpa toneladea. Azkenengo onek be zeozer bear dau antza, ta onek 3.100 pesetan saltzen dau toneladea.

Eta zer esango dogu oraiñ; nekazaritzak gitxi emoten dauala? Ez dakit nik asko ala gitxi emoten dauan; baiña emoten dauan erdia baiño geiago beste batzuentzat izaten dala ikusi dogu. Eta geiago zer? Ba lapurketa lotsabako onen ondorea, penagarria benetan, egunetik egunera geitzen dioan nekazaritzaren "exodoa" dala.

J. L. Belaustegui.